

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

LIMUn gure lana egiteko behar ditugun funtsezko baliabideak hainbat motatakoak dira. Batetik, tailerra, makinak, materialak eta garraiobideak ditugu, altzariak sortu eta bezeroei eramateko. Bestetik, gure aplikazioa eta webgunea dira baliabide teknologiko garrantzitsuenak, bezeroei neurriak hartzen eta diseinuak aukeratzen laguntzen dietelako. Gure langileak funtsezkoak dira, haien esku baitago altzarien diseinuaren eta fabrikazio-prozesuaren garapena. Horren baitan, lehentasunez lan-merkatuan zailtasunak dituzten pertsonak kontratatzea aurreikusten dut, hala nola 50 urtetik gorako profesionalak edo desgaitasun fisiko zein psikologikoren bat duten pertsonak. Bestalde, Barakaldoko Egurraren eta Altzarigintzaren Erdi Mailako Lanbide Heziketako zikloko ikasleak ere gure instalazioetara etorriko dira praktikak egitera, eta haien prestakuntza-prozesuan parte hartuko dut, benetako lan-ingurune batean trebakuntza espezializatua eskainiz. Gainera, diru-iturriak behar ditugu, hala nola maileguak edo aurrezkiak, enpresari eusteko eta hobetzen jarraitzeko. Baliabide hauek guztiak ondo kudeatzen ditugu kostuak kontrolatzeko eta gure produktuak gero eta hobeak izatea lortzeko. Azken batean, baliabide hauek dira LIMU proiektua errealitate bihurtzen dutenak.